

Jardunaldiak. Ugalkortasunaren auzia etorkizuneko Euskal Herrian  
2006ko Urriak 20, Bilbo  
Gaindegia eta EHUKo Soziologia I Saila

**SARRERA: "EUSKAL HERRIKO DEMOGRAFIA ZERTAN DEN".  
MILA AMURRIO EHU-KO SOZIOLOGIA IRAKASLEA**

Egun on

Ongi etorria eman nahi dizuegu *Ugalkortasunaren auzia etorkizuneko Euskal Herrian* Jardunaldi honetara hurbildu zareten guztioi.

Hasi aurretik, azaldu nahi dizuegu, modu labur batez bada ere, zeintzuk diren halako jardunaldia antolatzeko Gaindegiak eta EHUKo Soziologia I sailak izan dugun arrazoia.

Miguel Beltran-ek, soziologoak, XX. mendearen gizarte aldaketa aztertzen duelarik aipatzen dituen aldaketa sakonen artean nabarmendu izan ditu Demografian eta Familian gertatutako *lurrikarak*. *Lurrikara* hitzaren erabilerarekin ñabartu nahi izan du XX. mendearen azkeneko herenean mendebaldeko gizarteetako jaiotza- eta heriotza tasek izandako aldaketa sakonak eta azkarrak eta aldaketa horiek duten eragina populazioen tamainan, jardunean eta zahartze prozesuan. Horrela, haren esanetan, XX.mendeko aldaketa demografikoak erraldoiak eta istilutsuak izan dira, etorkizunerako ondorio garrantzitsuez beteak eta jende askoren bizipen pertsonalen osagai.

Izan ere, XX. mendean zehar, gerrak eta izurriteak aparte utzita, herrialde industrializatuetakoko pertsona askok euren familietan bizi izan dituzte aldaketa horiek. Esaterako, mendearen hasierako erdialdean jaiotako europar batek hainbat neba-arreba izateko probabilitate handia zeukan eta haietako baten bat edo gehiago haurtzaroan hiltzen zen. Bigarren erdialdean jaiotakoek neba-arreba gutxiago izateko probabilitate handia zuten, eta, ez zen hain probablea haietako baten bat helduarora ailegatu baino arinago hiltzea. Gauza biek, neba-arreben kopuruaren jaitsierak eta heriotzak, adierazten dute Europako gizarteetan orokortu zela bai heriotzen kontrola bai jaiotzena. Azken horrek ekarri du zenbait herrialdetan munduko jaiotze-tasarik txikiena izatea. Italiaren kasuan, baten batek egindako kalkularen arabera eta gauzak horrela segituz gero, pertsona gehienek gurasoak eta amama-aittite baino ez lituzkete izango, ez neba-arrebarik ez lehengusu-lehengusirik ez izeko-osabarik.

Jaiotze tasa hain txikia izateak inmigrazio barik populazioaren galera ekarriko luke, dagoeneko populazioaren zahartze garrantzitsu bat ekarri du: adineko pertsonen kopurua handitzen doa ez soilik bizi modu osasuntsuengatik eta medikuntzan izandako aurrerapen

handiengatik, baizik eta geroz eta gazte gutxiago dagoelako gizateriaren laugarren zatirik garatuenean.

Horrek guztiak zer ikusi handia dauka familia esperientziarekin. Eta familia instituzioan gertatzen diren aldaketa eta horien ondorio demografikoak oso-oso garrantzitsuak dira bai lan merkaturako bai ongi izate zerbitzuetarako: osasuna eta pentsioen sistema. Horren aurrean askok inmigrazio politika zabala proposatzen dute.

Deskribatutako errealitate hori Euskal Herriko errealitatea ere bada?

Gaindegia, Behatoki sozioekonomikoak eta Euskal Herriko Unibersitateko Soziologia I sailak eskaini nahi dugu gune iraunkor bat Euskal Herriko gizarte aldaketari buruzko gai, ikerketa eta auzi esanguratsuen inguruan eztabaida burutu ahal izateko. Gure asmoa, hortaz, aurtengo ekimenaz gain, urtero-urtero holako jardunaldiak edo topaketak antolatzea da.

Irakurri duzuen bezala aurtengo jardunaldiaren gaia: *Ugalkortasunaren auzia* dugu, eta honako helburu hauekin ekarri ditugu hona:

- Ezagutuarazi Euskal Herriko demografia zertan den, errealitate demografiko hori alderatuz Europako eta mendebaldeko beste herrialdeetako egoerarekin. Baina datuen berri eman aurretik gai horri buruzko ikuspegi makrosoziologikoa ere eskaini nahi dizuegu. Ikuspegi horren berri Ane Larrinagak, Soziologia irakasleak emango digu.

- Ondoren, Amaia Elizagaratek, soziologoak eta estatistikan adituak Euskal Herriko demografiari buruzko zenbait datu ekarriko dizkigu datu horien gainean ugalkortasunaren inguruko gogoeta soziologikoari ekin diezaiogun.

- Azkenik, gogoeta horri ekingo diogu Marta Luxan soziologoa eta demografian adituaren eskutik.

Beste barik hitza emango diogu gure lehenengo hizlariari, Ane Larrinagari.

**Ugalkortasunaren auzia ikuspegi demografikoa**